




Euroguneko PMI konposatua apaldu egin da



Irailean, euroguneko PMI indize konposatua 56,2 mailara jaitsi zen. Balio horrek adierazten du ekonomia indartsu hazten ari dela, baina aurreko hilabeteetan baino gutxiago. Industria gehiago nabaritzen ari da hornigaiaren eskasia, eta horrek eragina du etorkizuneko igurikimenean.

EAEko industria %8,5 hazi zen abuztuan




Eustatek argitaratu berri duenez, EAEko industriak aurreko urtean baino %8,5 gehiago ekoiztu zuen aurtengo abuztuan. Emaitarik onena ekipamendurako ondasunena izan zen (%20,9). Aitzitik, energiaren ekoizpena %5,9 murriztu zen urte batetik bestera.



Afiliazioa %1,3 hazi zen irailean


Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte arteko aldakuntza tasa



Euskadin, Gizarte Segurantzako afiliazioen kopurua %1,3 hazi zen irailean urte arteko tasan. Igoera antzekoa izan zen gizonen (%1,3) eta emakumeen (%1,4) artean. Bestalde, hazkundera handiagoa izan da zerbitzuen artean (%1,8) industrian (%1,0) edo eraikuntzan (%0,8) baino.

Erregistratutako langabeziak behera egin du berriro irailean

Erregistratutako langabezia Euskadin
Urte arteko aldakuntza tasa



Irailean, Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %17,5 murriztu zen aurreko urtearen aldean. Tasa hori aurreko hilabeteetan erregistratutakoa baino handiagoa da, eta, beraz, langabeziaren jaitsiera bizkorta egin da. Bereziki azpimarratzekoa da gazteen langabeziaren beherakada (-%33,0).